


UDAL BATZORDEEN BERRI


LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2017/12/12) Hurrengo saioa: 2017/1/09	Euskararen eguna	Aukeratutako liburua Uxue Alberdiren <i>Aulki bat elurretan</i> da. Abenduaren 3an, 12:30etatik 13:30etara jarri da hitzordua eta liburuaren pasarte bat irakurriko da taldean. 11 liburu lortu dira eta partaideen artean liburua eskainiko da abenduan zehar nahi duenak irakur dezan.	Solasaldi literarioa antolatu abenduaren bukaera aldera. Ahal bada, Uxue Alberdi gonbidatu.
	Erretaula	Behin erretaularen lanak amaituta, honek duen interesa zabaltzeko nola eta nolako difusioa eman nahi zaion hausnartu eta bideak jorratzen hasi (herri mailakoak / herriz gaindikoak)	Aldundiarekin izango den bileran gure asmoak azaldu eta elkarren arteko inplikazioaren beharra azpimarratu.
	Abenduko agenda	Gabon jaien ospakizunen inguruko agenda prestatu etxeetara zabaltzeko.	Watsappez adierazi eta paperezko buzoneoa egin
	Olentzero eta Mari Domingiren etorrera	Batetik, herriko haur zein gaztetxoentzat gutun bat prestatu, Olentzero eta Mari Domingiren etorrera adieraziz. Bestetik, haur eta gazteek Olentzerori eta Mari Domingiri beraien eskaerak egiteko eskutitz eredu ere prestatu, beraiek herrira datozenerako, gutun hauek eskura emateko aukera izan dezaten. Olentzerok eta M.Domingik gaztainak eta ikatza ekarriko dituzte guztientzat eta haurrentzat gaila eta ipuin batzuk ere, guztien artean konpartitu ahal izango dituztenak.	Herrian dauden haur zein gaztetxo guztientzat prestatutako eskutitzak banatu. Gaztainak eta gailak eskuratu, ipuinak ere, eta haurrentzat toki goxo bat prestatu Ostatuko sarreran, Olentzero eta M. D. datozenerako.
	Garbitzailearen kontratazioa	Garbitzailearen kontratazioa egiteko deialdi eredu aztertu.	Watsappez adierazi eta paperezko buzoneoa egin
	Goierriko Hedabideak	Goierriko Hedabideen harpidetza kanpaina egiteko deialdi eredu aztertu eta osatu (banaketa puntuak Alegin eta Itsason, ogia hartzen ez dutenentzat).	Watsappez adierazi eta paperezko buzoneoa egin



	Jakinarazpen desberdinen eta batzordeetako akten banaketa	Eskuartearen darabilgun informazioa modu arin eta eraginkorrean herritarrei banatzeko prozedura adostu	Jarritako egunetan jakinarazpenak banatu.
--	-----------------------------------------------------------	--------------------------------------------------------------------------------------------------------	-------------------------------------------

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Ekimen sozio-kulturalak (2017/12/03) Hurrengo saioa: 2017/01/05	Abenduko ekimenak	Abenduak 15 arratsaldeko 19.30tan, Ostatuko atarian Olentzero jarri eta gabon kanten lehen entsaioa burutu. Abenduak 23 arratsaldeko 18.30tan, Olentzero eta Mari Domingiren etorrera. Umeek eta nahi duten guztiek gutunak eskura eman. Ondoren, bigarren gabon kanten entsegua eta hau amaitu ostean gaztaina jana. Abenduaren 26a: <i>Aulki bat elurretan</i> liburuaren solasaldia, 18:00etan Abenduaren 31n gazteen musika emanaldia aurreikusten da, 12:30etan	Deialdiak egin eta eginbeharrak eta ardurak zehaztu. Kontzertuarena zehaztu.

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Azpiegitura eta ingurumena (2017/12/09) Hurrengo saioa: 2017/12/30	Etxebizitzak margotzeko diru-laguntzak	Diru-laguntza hauek 10 urtetik behin eskatu ahal izango dira eta margotu beharreko azaleraren baitan 400 eta 800€ artekoa izango da, udal teknikariaren balorazioaren baitan. Kontuan hartuko da egurra babestu den e.a. 2018ko Udal aurrekontutan 3000 eurotako diru-partida aurreikustea	Ordenantza zehaztu eta zabaldu
	Uralitak	Herrian oraindik ugari den material honen aurrean, udalak kontsulta egingo du berai kartzeko enpresa espezializatuen aurrekontuak ezagutzeko, beste alternatiba batzuk proposatzeko e.a.	Guztia landu ondoren diru-laguntzak ematearen aukerak aztertuko dira
	ITE	Etxebizitzetik pasatu beharreko Inspezio teknikoaz ere zehaztasun gehiago	Udal arkitektoarekin landu ondoren



**ITSASOKO
UDALA**
(GIPUZKOA)

		beharrezkoa dela iritzi da.	herritarrei jakinaraziko zaie.
	Foru Aldundiaren diru-laguntza	Itsasoko Udala martxan jartzeko GFAk 15.000€ eskaini dizkio eta urtean zehar izan diren gastuen fakturak azertu dira eta bidaliko zaizkie.	Dokumentazioa bideratuko da
	Udal langilearen hurrengo lanak	Uribarko tabloi parean tubo eta masa/Maduralden buzoia eta tabloia/ Bide seinaleak ipini/ Ostatuko komunean umeak aldatzekoa/ Tiloak podatu/ Kanposantuan iturria jarri/ Alegiko iturrian sortzen den putzua kendu/ Bankuak Oria kalean eta Itsusturrin/ Uribar aldeko banku ondoko putzua kendu	Lan hauen jarraipena egin
	Kizkitzako pagadiaren egoera	Foru Aldunditik basogintzako zuzendaria eta bi basozainek azertu dute pagadia eta pagoen egoera oso zaila dela iritzi diote, adar handiegiak podatzeko eta itzal gehiegi basoa berritzen hasteko. Beste pago bat ere erori da.	Nola pagadia biziberritu erabaki